

# «Auzi filosofikoak planteatzen dira, baina egunerokotasunean txertatuta daude»

Argudioak erabilia eztabaidatzearen eta elkarri entzutearen garrantzia nabarmendu du Agustin Arrietak 'Gaueko eztabaidak'-en

NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. Espainiako gobernuak dekretu bidez Filosofia derrigorrezko hezkuntzatik ezabatu zuen eguneko biharamunean aurkeztu zuen Agustin Arrieta Urtizbera idazle eta UPV/EHUko Filosofia saileko irakasleak 'Gaueko eztabaidak' liburua.

Fikziozkoak (bi) eta filosofia-ren ingurukoak (sei) batuta, zortzigarren liburua du Ereinek argitaratu dion hau. Egileak argitaletxe editore Inazio Mujika Iraola eta ikasle izandako Irati Zubia Landa Filosofian doktoregaia izan zituen lagun liburuaren nondik norakoak azaltzeko orduan.

Editoreak nabarmendu zuenez, liburuak jasotzen dituen lau gazteren arteko 'gaueko eztabaida' horietan lantzen diren gaiak «filosofikoak dira, baina filosofia ez da gugandik oso urruti dagoen gauza bat, eta hurbilekoak diren gaiak modu nahiko gertukoan eztabaidatzen dituzte, filosofiaren-gandik oso urrun dagoen pertsona batek ulertzeko moduan».

Edukiaren inguruko azalpenak Irati Zubiari utzita, liburuaren «kanpoaldeko ezaugarriak» erreparatu zien egileak: «Bereizgarriak aipagarriena elkarriketa formatuko testua da. Hitz-hartzeak txandakatzen dira modu orekatu samar batean», filosofiak hastapenetatik bere-berea duen elkarriketaren tradizioari jarraiki.



Elkarrizketa moduan egituratu du liburua Agustin Arrieta Urtizberak. usoz

**GAUEKO EZTABAIDAK**  
AGUSTIN ARRIETA URTIZBEREA

Generoa: Saiakera.  
Argitaletxea: Erein.  
Orrialdeak: 168.  
Salneurria: 16 euro.

Izan ere, detektatuta zeuzkan klasean «ondo funtzionatzen zuten eta eztabaida pizten zuten zenbait gai», eta eguneko kongresu batean parte hartzen duten eta gaur egun han entzundakoak eta esandakoak solasteko elkartzen ziren lau gazteren arteko elkarriketak iruditu zitzaizkion gai horiei buruz jarduteko modurik egokiena. Modurik klasikoenetakoa, Inazio Mujikak gogoratu bezala.

Hiru gauetako eztabaidak bildu ditu liburuan. Aurrenekoan zientziak, erlijioak eta egiaz ariko

dira; arteak, generoak, maitasunak eta balioez bigarrean eta azkenekoan, besteak beste, zorientasunak.

Berriketaz haragoko elkarriketak dira: «Elkarrizketa argumentatiboak dira, eta badago argudioaren eta kontra-argudioaren aldarrikapen implizitua». Ez da hori ezohiko bilakatzen dituen ezaguri bakarra: «Oso elkarrizketa enpatikoak dira, pertsonaiek entzuten dakitelako. Bazueta badaude tentsioak, baina saiatzen dira elkarri entzuten». Arrietak esan zuen, baina edonork esan lezake: «Horrelako elkarriketen premia badago gizarte honetan».

Idazle bezala, izan zituen arazo formalen batak zituen horretan idazteko: erritimoa; pertsonaien taxutzea, ez zitezen izan

estereotipuegiak, nork bereari eutsi behar izan zezaten aldatzen joateko gaitasuna... Testuari buelta asko eman behar izan dizkio oztopo horiek gainditzen joateko, eta gustura gertatu da azken emaitzarekin.

Probetxuzko elkarrizketek eskatzen duten ahalegina egin behar izaten dute gauero solaskide gazteek, «batzuetan paralelo doazen, besteetan gurutzatzen diren eta tarteka bat egiten duten lau errepide gisa» irudikatu baititu egileak bi mutilak eta bi neskek. Hori ikus eta ulertaraztean datza, neurri handi batean, ariketaren aberastasuna eta liburuaren balioa.

**Publiko zabalarentzat**

Agustin Arrietaren hitzetan, ia edonorentzat izan daiteke egokia liburua, idatzi ere «gai hauek gustuko dituen edonorentzat» idatzi baitu. «Ez dago terminologia sofistikatorik; auzi filosofikoak planteatzen dira, baina gehienak egunerokotasunean txertatuta daude».

Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleak ere izan ditu gogoan idazteko orduan. Nahiko luke «liburu hau iristea haiengana, izatea tresna bat arrazoitze, argudiatzeko, entzuten jakiteko, gogoeta egiteko...».

Irati Zubiak, berriz, adierazi zuen lehendik ere hurbildu izan dela Arrieta 'Gaueko eztabaidak'-en lantzen dituen gaitara, nahiz eta kasu honetan «modu berezian egin, modu lurtiar edo gertuagoak batean». Antzezlan batekin alderatu zuen elkarrekin jarduten duten lau lagun arteko arazo bideak biltzen dituen liburua, eta gogora ekarri zion halaber Agustin Arrietaren irakasle modua.

## Irakurtzearen eta idaztearen aldeko aldarrikapena

'HIZKIEN ALDE. Manifestua' album ilustratua osatu dute Goiatz Labandibar idazleak eta Iñaki Zapirain ilustratzaileak

M. I.

DONOSTIA. Haurrei zuzendutako liburu oso zainduak ditu Denonartean argitaletxe nafarraren katalogoak, non tarte zabala duten album ilustratuek. Berri bat aur-

keztu dute aste honetan Errenteriako Lekuona Fabrikako liburutegian. 'HIZKIEN ALDE. Manifestua' du izenburua, eta haurrei zuzendutako irakurtzearen eta idaztearen aldeko aldarrikapena, funtsezko hainbat galdera planteatzen dituena: zer da idazle izatea? zer da irakurle izatea? zein da idazlea? zein irakurlea?

Lehendik ere beste proiektu batzuetan elkarrekin lan egindakoak diren Goiatz Labandibar Arbelaitz idazle oiartzuarrak eta Iñaki Zapirain Retezi ilustratzaile erren-

teriarrek osatu dute gogoeta horiek guztiak bere baitan hartzen dituen albuma. Liburuak, hain zuzen, «era ludiko eta gozagarri batean haurrak ahaldu nahi ditu irakurle eta idazle badirela senti dezaten».

Haurrentzako pentsatuta egon arren, «aldarrikapenak adin guztiak gainditzen dituela argi dugu. Denentzat da baliagarria», adierazi zuten aurkezpenean. Liburuak bi zatitan banatuta dago. Hasieran «irakurlearen aldeko dekalogoak» dago eta ondoren, idazlearen aldekoa. «Esaldi bakoitza aldarrikapen bat da», eta «baliagarrietasun hezitzailea» ere badu albumak, «haurren artean irakurzaletasuna sustatzeko egiten den lanari bultzada, aitortza eta laguntza» eskaini nahi baitio.

Goiatz Labandibar (Oartzun, 1985), Kazetaritzan lizentziatua eta komunikazio arloan lan egin-

dakoa, helduentzako literaturan ibili da orain arte. Idatzi ditu narrazio-liburuak ('Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak', 'Fotogramak', 'Hori zen dena' eta 'Amez'), poesia ('Interpretazioak g minorrean') edota antzerki gidoia ('Salaketa'), eta hau du haurrentzako lehen liburua.

Iñaki Zapirainentzat (Errenteria, 1982) erabatekoa da estreinaldia, hau baita ilustratzaile gisa argitaratu duen lehenengo liburua. Zapirain Arte Ederretan lizentziatua da eta irakasle ikasketak egindakoa. Ikus-entzunezko munduan lanean aritu ondoren, irakaskuntzan dihardu gaur egun Orereta Ikastolan. Horrez gain, hainbat unitate didaktikoren egile da (Asmoz Fundazioarekin 'Tribuaren Berbak' eta 'Hizkuntzarekin jolasean'; eta AEK eta EHRekin Korrika 21 eta 22ko unitate didaktikoak).

SALÓN DE FUMAR  
ALBERTO MOYANO

## Bibliografía de una flor



El negacionismo se divide en dos escuelas: la que se empecina en que los hechos nunca sucedieron y la que los tergiversa hasta dejarlos irreconocibles. Aunque malvive entre los fanáticos, la primera está en declive porque tiene las patas cortas. Por poner un ejemplo prosaico: tras el bofetón de Will Smith a Chris Rock en la gala de los Oscar, de inmediato surgieron los tajantes negacionistas, la agresión no había tenido lugar, era tan sólo una pantomima ideada para animar las audiencias del decaído espectáculo hollywoodiense. El transcurso de los días se llevó por delante la falacia.

Sin embargo, prospera la otra modalidad. En 'Babi Yar. Context'—que mañana se proyecta en el Festival de Cine y Derechos Humanos—, el director Sergei Loznitsa reconstruye la operación de enmascaramiento que la URSS emprendió en torno al asesinato de 30.000 judíos el 29 y el 30 de septiembre de 1941 en este barranco a las afueras de Kiev. En el imaginario soviético no había lugar para los judíos asesinados por serlo, sino que las montañas de cadáveres correspondían a camaradas proletarios antifascistas. Cuando lo visité, apenas un candelabro daba cuenta de la identidad de los ejecutados. Esta operación de sustitución es básicamente lo que cuenta en su película el director ucraniano mediante el rescate de abundante material de archivo.

Nuestra época se caracteriza por su infinita capacidad de generar un gran aparato teórico a partir del hecho más nimio. El bofetón de Will Smith tiene la contundencia de una flor, pero se prefiere repasar el incidente a la luz del género, la raza, el sexo, la edad, la profesión, la infancia, el perfil psicológico o el estatus económico de sus protagonistas.

No hay nada más vacuo que proclamar un juicio moral, cuya expresión más sincera suele ser la mera descripción de los hechos. Relata asépticamente qué es lo que has visto, que ahí ya está fijado con nitidez qué es lo que opinas.